

# NAFARROAKO NAZIOARTEKO 2024-2026 PLANA

Enpresak nazioartekotzeko  
Nafarroako Gobernuaren estrategia



# AURKIBIDEA

02. ABIAPUNTUA

02. NNP5aren HELBURUAK ETA PLANTEAMENDUAK

09. 1. ARDATZA. GOBERNANTZA ETA LIDERGOA

16. 2. ARDATZA. INFORMAZIOA ETA LEHIAKORTASUNERAKO ADIMENA

19. 3. ARDATZA. NAZIOARTEKOTZE DIGITALA

21. 4. ARDATZA. TALENTUA

27. 5. ARDATZA. LAGUNTZA-MEKANISMOAK

44. 6. ARDATZA. ATZERRIKO INBERTSIOA ERAKARTZEA

# I. ABIAPUNTUA

## Esportazioen datu orokorrak

Enpresa multinazionalen esportazioei eta ezarpenari buruzko datuei erreparatuta, Nafarroak ekonomia irekia eta dinamikoa du. Merkataritza balantza Nafarroaren oso aldekoa da, esportazioek foru komunitateak inportatzen duenaren % 147 estaltzen baitute.


Horrela, 2022an, Nafarroako esportazioak 10.700 milioi eurora iritsi ziren, aurreko urtean baino % 12,67 gehiago, eta 10.000 milioiak gainditu zituzten berriro, 2019an koronabirusaren ondoriozko krisiaren aurretik gertatu zen bezala.

Enpresa esportatzaileei dagokienez, 2022an Nafarroako 3.433 enpresak egin zituzten esportazioak, alegia, 2020an kanporako salmentak izan zituzten 2.889 enpresak baino askoz ere gehiagok; urte horretan jarri zen martxan aurreko nazioarteko plana. Hala ere, ohiko esportatzaileen ehunekoa txikia da oraindik, hau da, azken lau urteetan gutxienez etengabe esportatzen duten enpresena. 2022an 1.013 enpresa izan ziren, guztien % 29,5.

1.013

2022an, Nafarroako 1.013 enpresak modu erregularrean esportatu zuten. Kopuru hori enpresa esportatzaile guztien %29,5 da

### OHIKO ESPORTATZAILEAK, 2022



Iturria: ICEX eta Nafarroako Estatistika Institutua.

# Esportazioen kontzentrazioa


Esportazioen zifra globalak positiboak badira ere, datuetan sakontzen badugu, irudi desberdin bat aurkituko dugu: esportazioen kontzentrazio handia. Zifra globalak enpresa gutxi batzuen nazioartekotze maila oso altuaren emaitza dira. 2020an esportatu zuten 3.000 enpresetatik, gehien esportatzen duten 25 enpresak soilik izan ziren esportazioen bolumen osoaren % 55,3. Horietatik 5 enpresak kanpora egindako salmenten % 37,1 metatu zuten. Gainera, esportazioen % 92,6 enpresa esportatzaileen % 6,6rena baino ez dira.



Dena den, datuak positiboak ez diren arren, hobera egin dute 2020arekin alderatuta; izan ere, bost esportatzaile handienak % 44,3ra iristen ziren, eta lehen 25 enpresak % 62,1era.

Nolanahi ere, datuen azterketatik ondoriozta daitekeenez, Nafarroako enpresa ehunaren zati handi batek nazioartekotasun urria du oraindik, eta atzerrian hasteko edo sendotzeko tresnak behar ditu.

## ESPORTAZIOEN BANAKETA ENPRESEN ARABERA, 2022



	ENPRESA KOPURUA	ENPRESEN EHUNEKOA	ESPORTAZIOEN BOLUMENA	ESPORTAZIOEN EHUNEKOA
50.000 euro baino gutxiago	1.929	67%	13.535.000	0,15%
50000 eta 100000 artean	451	15,7%	84.987.900	0,96%
500.000 eta 5 milioi euro artean	308	10,7%	546.089.800	6,18%
5 eta 50 milioi artean	164	5,7%	2.545.281.000	28,81%
50 eta 250 milioi artean	244	0,83%	1.920.854.000	21,74%
250 milioi baino gehiago	4	0,05%	3.721.417.300	42,13%

# Merkatuen kontzentrazioa

Nafarroako esportazio gehienak egiten dituzten enpresen kontzentrazio handia dagoen bezala, Nafarroako enpresek salmentak egiten dizkien merkatuei dagokienez ere kontzentrazio handia antzematen da. Nafarroako esportazioen helmuga diren lekuen artean, 2022an, honako hauek finkatu ziren merkatu nagusi gisa, hurrenkeran honetan: Frantzia, Alemania, Italia, Portugal eta Erresuma Batua; seigarren postuan geratu zen Estatu Batuak, europarra ez den lehen herrialdea.


Sailkapenaren buru diren Europako 5 herrialdeek batera Nafarroako enpresen esportazioen % 54,4 metatzen dituzte. Nabarmentzekoa da, gainera, 2020ko esportazioen % 77 Europan egin zirela.

Hain zuzen ere, Nafarroako enpresek horrelako merkatuetan alde zuzen izan duten presentzia oso kontuan hartu da plan honetako lehentasunezko herrialdeak hautatzerakoan (ikus 1.1 ekintza). Hautaketa hori baliagarria izanen da Nafarroako Gobernuaren jarduketak lehenesteko beste arlo batzuetan, hala nola merkataritza diplomazian edo sektore proiektuen hautaketan.

Hautaketa horretan, merkatu heldu horiek mantendu eta indartu nahi izan dira, presentzia finkatua dutenak, baina abiapuntu egokia izan daitezkeenak nazioartekotzen hasten diren enpresentzat, eta, aldi berean, Nafarroarako proiektzio handiko beste merkatu berri batzuk bultzatu, hala nola Txina, Mexiko edo India.



## NAFARROATIK EGINDAKO ESPORTAZIOAK, HELMUGAKO HERRIALDEAREN ARABERA



# NNP4aren diagnostikoa

Nazioarteko plan honen prestakuntzan kontuan eduki da aurreko nazioarteko planetatik eratorritako esperientzia, batez ere berriki egin den 2020-2022ko Nafarroako Nazioarteko Planetik (NNP4) eratorritakoa.

Nazioarteko plan hau prestatzeko lanen barruan, aurrekoaren emaitzak aztertu dira Nafarroako enpresa, kluster, elkarte edo nazioartekotze eragileekin.

Nafarroako Nazioarteko Planaren azterketa lan horretatik ateratako ondorioetako batzuk honako hauek izan dira:

- NNParen ezagutza nabarmen hazi da, enpresen % 32k ezagutzen baitu, eta 2016an, berriz, % 9k.
- Nazioartekotuen % 45ek ezagutzen du. Hala eta guztiz, enpresen ehuneko handi batek ez ditu ezagutzen Nafarroako Nazioarteko Planaren nazioartekotzeari laguntzeko tresnak.

# NNP4aren adierazleak

Nafarroako Nazioarteko Planak (NNP4) adierazle batzuk planteatu zituen plana ixtean, eta, kasu gehienetan, lortu egin dira. Erdietsi ez den helburu bakarra ohiko enpresa esportatzaileen kopurua da; Nafarroako esportazioen ahulguneetako bat da hori. Hazkundera motela da, eta gutxienez 4 urtez jarraian esportatzen duten enpresen kopurua esportatzaile guztien herenaren ingurukoa da.



## NNP4aren ADIERAZLEAK

	ABIAPUNTUA, 2020	2022ko ABENDURA BITARTEKO DATUAK	NNP4aren HELBURUA	% ERDIETSIA
Ohiko enpresa esportatzaileen kopurua	976	1.013	1.050	96,47%
Enpresa esportatzaileen kopurua	2.889	3.433	3.000	114,43%
Kanpora irtetea digitalizatzen duten enpresen kopurua	-	106	100	106%
NNP4aren laguntzen inpaktuen kopurua	500	1.987	1.000	198,7%
Esportazioen bolumena	8.918	10.700	10.000	107%

Nafarroako enpresek Nafarroako Nazioarteko Planean (NNP4) duten parte-hartzearen harira, inpaktuak 2.057 izan dira 2021etik 2022ra bitartean, eta inpaktu gehien jardunaldiek eta laguntza programek izan dute.

## NNParen INPAKTUAK 3.054

LAGUNTZA  
PROGRAMAK

1.042

JARDUNALDIAK  
760

MISIOAK  
259

DEIALDIAK  
371

WEB  
MINTEGIAK  
622

6

## 2021-2023

# II. PLAN BERRIA

## NNP5aren helburuak

Aurreko nazioarteko planaren azterketarekin batera, Nafarroako Nazioarteko Plan (NNP4) honen diagnostiko lanak Nafarroako enpresek nazioartekotzeari laguntzeko dituzten beharren prospekzio batekin osatu dira.

Lan horiei esker, nazioartekotze ekintzak birplanteatu dira eta plan berrirako honako helburu hauek planteatu dira:

- Enpresek prestakuntza hobea eskatzen dute nazioarteko merkatuei heltzeko. Nazioarteko teknikari bat ez ezik, hura kanpoko merkatuetarako prestatuta egotea ere eskatzen da. Hizkuntzak, kultura, prozesu operatiboak, komunikazioa eta abar eskatzen dira.
- Kanpoko sustapenari dagokionez, konbinazio instituzionala/komertziala hobeki uztartzea eskatzen da, eta, horretarako, ekintza komertzialen aurreko eta ondorengo lana indartzea. Alderantzizko misioen alde egitea ere eskatzen da.
- Merkatuei buruzko informazio hobea izatea oraindik ere kezka da enpresentzat; merkataritza, teknika, geoestrategia, segurtasuna edo aduanei dagokienez aplika daitekeen prestakuntza eskatzen dute.

### NNP5aren ADIERAZLEAK

	ABIAPUNTUA, 2023	NNP5aren HELBURUA, 2026
Nazioarteko planaren inpaktuen kopurua	1.986 (abend. 22tik)	3.000
Ohiko esportatzaileen kopurua	1.013 (abend. 22tik)	1.100
50.000 eurotik gora esportatzen duten enpresak	1.151	1.300
Esportazioen bolumena, guztira	10.700.722	12.000.000
EBtik kanpoko esportazioen ehunekoa	19,5%	21,5%



# Lan ardatzak

Nafarroako Nazioarteko Plan berriak (NNP5) sei ardatz izanen ditu, eta ardatz horiek bat etorriko dira plan hau egin aurreko azterketan ezarritako helburu eta eskaerekin.



## 1. ARDATZA. GOBERNANTZA ETA LIDERGOA



## 2. ARDATZA INFORMAZIOA ETA LEHIAKORTASUNERAKO ADIMENA



## 3. ARDATZA. NAZIOARTEKOTZE DIGITALA



## 4. ARDATZA. TALENTUA



## 5. ARDATZA. NAZIOARTEKOTZEKO MEKANISMOAK



### 5.1. ESPORTAZIORAKO HASTAPENA



### 5.2. HEDATZEA ETA SENDOTZEA



## 6. ARDATZA. ATZERRIKO INBERTSIOA ERAKARTZEA



# 1. ARDATZA. GOBERNANTZA ETA LIDERGOA



## EKINTZAK

- 1.1. Lehenasunezko merkatuak ezartzea
- 1.2. Diplomazia komertziala
- 1.3. Nazioartekotzearen eguna
- 1.4. Beste erakunde batzuekiko lankidetzeta: NNP zirkulua
- 1.5. Nazioartekotze Batzordea: Nafarroako Gobernua - klusterrak
- 1.6. Gobernuko beste departamentu batzuekiko koordinazioa
- 1.7. Nafarroaren kanpoko irudia




# 1.1. LEHENTASUNEZKO MERKATUAK

Nafarroako enpresentzat lehentasunezko merkatu batzuk ezartzea, zeinak nazioartekotze ekintzak bultzatzeko ahaleginen ardatz izanen diren.

Herrialde horiek honako hauen arabera aukeratu dira: dinamismoa, aukerak Nafarroako enpresa-sarearekin egokitu ahal izatea, negozioak egiteko erraztasuna, krisiaren ondoren suspertzeko gaitasuna eta enpresek eta eragileek plan honen diagnostikoan jasotako iradokizunak.

2023-2025 aldirako, herrialde hauek hautatuko dira:



 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761

## 1.2. DIPLOMAZIA KOMERTZIALA

### Zer den

Diplomazia komertzialean, Nafarroako Gobernuak erakundeetan eta enpresetan ezarritako bilerak, kontaktuak eta ekitaldiak sartzen dira, Nafarroak, bertako produktuek eta enpresek nazioartean duten posizionamendua hobetzeko.

Kontaktu horiek Nafarroako sektore estrategikoentzat eta nazioarteko plan honetako lehentasunezko merkatuentzat izanen dira.

### Norentzat den

Nafarroako enpresak dira diplomazia komertzialaren arloan Nafarroako Gobernuak izandako topaketen azken onuradunak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

- Kontaktu diplomatikoen topaketak antolatzea.
- Bitartekaritzan aritzea elkarrekin, kanpoko gobernuekin edo enpresa bultzatzaileekin.

### Zer merkatuentzat den laguntza



### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es)

## 1.3. NAZIOARTEKOTZEAREN EGUNA

### Zer den

Nafarroako nazioartekotzean parte hartzen duten enpresa eta erakunde guztientzat urteko topagune izanen den jardunaldi bat.

Jardunaldia elkarrekin antolatuko dute Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako nazioartekotze arloko gainerako eragileek: ICEX, CEN, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera eta Enterprise Europe Network.

Jardunaldiak gai desberdinak jorratuko ditu edizio bakoitzean, eta B2B topaketak egiten ahal dira nazioarteko enpresekin edo lehenasunezko merkatuetan espezializatutako aholkularitza enpresekin.

### Norentzat den

Nafarroako enpresetako profesionalak, nazioartekotzearen esparruarekin modu batera edo bestera harremana dutenak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

- Doako sarrera jardunaldira.
- Enpresa topaketak egonen balira, edizio bakoitzean ezarriko da horietara nola sartu.

### Zer merkatuentzat den laguntza

Nazioarteko proiektuetarako, edozein merkatutan.

### Egutegia

Udazkenean ospatzen da urtero. Urtero jakinaraziko da egun zehatza.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es/jornadas](http://planinternacionaldenavarra.es/jornadas)

 Amaya Gurbindo

 [agurbini@navarra.es](mailto:agurbini@navarra.es)

 848425768



## 1.4. ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA. NNP ZIRKULUA

### Zer den

Nafarroan enpresak nazioartekotzen laguntzen duten eragileen arteko koordinazio taldea. Zirkulu horrek batera lan eginen du bikoiztasunak saihesteko, enpresei informazio integrala emateko eta ekintza jakin batzuk elkarlanean antolatzeko.

NNP zirkulua honako hauek osatzen dute, Nafarroako Gobernuaz gain: ICEX, CEN, Nafarroako Ganbera, SODENA, Enterprise Europe Network.

### Norentzat den

Eragileen artean koordinatzearen helburua, azken batean, Nafarroako enpresei mesede egitea da.

### Zer laguntza eskaintzen duen

NNP zirkuluak no wrong door sistemaren funtzionamendua bermatzen du, hau da, Nafarroako enpresa bat joaten den lekura joaten dela, gainerako erakundeen informazioa lortzen ahal du, haien beharretara egokitzen badira.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/conoce-el-circulo-pin>

 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761



# 1.5. NAZIOARTEKOTZE BATZORDEA: NAFARROAKO GOBERNUA - KLUSTERRA

## Zer den

Talde egonkor bat eratuko da, Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta foru komunitateko klusterrek osatua, nazioartekotzeari laguntzeko politikak koordinatzeko, lehenetasunak ezartzeko eta Nafarroako enpresa sarera ahalik eta gehien egokitzen diren kanpoko sustapeneko eta laguntzako ekintzak hautatzeko.

## Norentzat den

Foru komunitateko klusterrak: Nagrifood, Enerclúster, ACAN, Clavna, Functiona Print, Navarra Health Cluster.

## Zer laguntza eskaintzen duen

Klusterren bidez Nafarroako sektore estrategikoek adierazitako beharretara egokitzen den ekintzen urteko programa diseinatzea.

## Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/>

 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761



## 1.6. GOBERNUKO BESTE DEPARTAMENTU BATZUEKIKO KOORDINAZIOA

### Zer den

Nafarroako Gobernuaren lan eremu askok nazioartekotzea txertatuta dute beren jardueran. Hori da turismoaren, hezkuntzaren, berrikuntzaren edo eskubide sozialen kasua.

Plan honen esparruan, beste unitate batzuekin sinergiak bilatzeko lan egingen da, plan honen esparruan garatutako ekintzen barruan. Hori aplikagarria izanen da beste departamentu batzuen politikekin lotura duten sustapeneko ekintza sektorialen kasuan edo administrazioaren beste arlo batzuetarako baliabide baliagarriak izan daitezkeen diplomazia komertzialeko ekintzen kasuan.

### Norentzat den

Nazioarteko eremu batean lan egiten duten edo lan egiteko interesa duten Nafarroako Gobernuko departamentuak eta unitateak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Sektore anitzeko proiektuetan lankidetzan aritzea eta Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuek erabil ditzaketen nazioarteko proiektuoko baliabideak optimizatzea.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es)

 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761



## 1.7. NAFARROAREN KANPOKO IRUDIA

### Zer den

Nafarroaren kanpoko irudia modu bateratuan sustatzea, kanpora ateratzen diren enpresa nafarren nolabaiteko marka irudia sortze aldera. Kanpoko markaren irudi hori S4 Nafarroa espezializazio adimentsuaren estrategiarekin koordinatuta egonen da, SODENAREN bitartez, eta marka sektoriala sortzeari arreta jarriko dio, Nafarroako sektore bakoitzaren indarguneak ezagutarazteko helburuarekin.

Irudi bateratuak Nafarroatik datozen enpresen eta produktuen irudia hobetuko du.

### Norentzat den

Nafarroako Gobernuako unitateak eta, Nafarroaren kanpoko irudian eragina izateaz gain, irudi hori onuragarri duten erakundeak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

- Bideoak eta sustapenerako beste material batzuk eskuragarri jartzea, Nafarroako sektore estrategikoen indarguneak ezagutarazteko
- Markaren irudi bateratua sortzea, Nafarroaren eta kanpoan dituen enpresen sustapen ekintzetarako balioko duena.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/videos-promocionales>

 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761



## 2. ARDATZA INFORMAZIOA ETA LEHIAKORTASUNERAKO ADIMENA



### EKINTZAK

- 2.1. Joerei, prospektibari eta aukerei buruzko informazioa
- 2.2. Enpresa esportatzaileen komunitatea
- 2.3. Zerbitzuen esportazioari buruzko datuak



# 2.1. JOEREI, PROSPEKTIBARI ETA AUKEREI BURUZKO INFORMAZIOA

## Zer den

Mundu aldakor honetan, non araztu gabeko informazio ugari baitago, ezagutza garrantzitsua eskuratzea aldagai kritikoa da enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

Nafarroako Gobernuaren Nazioarteko Proiekzioaren Zerbitzuak aliantzak eta lankidetzak egiten ditu erakundeekin, aholkularitzekin eta profesionalekin, Nafarroako enpresei informazio hori emateko.

## Norentzat den

Nafarroako merkatu estrategikoei buruzko ezagutzak sakontzeko interesa duten enpresak edo profesionalak.

## Zer laguntza eskaintzen duen

Informazioa formatu hauetan emanen da:

- Bideo pilulak, nazioarteko planaren webgunearen bidez
- Negozio-aukerak
- Merkatu eta sektore estrategikoei buruzko berriak

## Zer merkatuentzat den laguntza



## Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/inteligencia-competitiva>

 Dolo Goya

 [mgoyaind@navarra.es](mailto:mgoyaind@navarra.es)

 848425767



## 2.2. NAZIOARTEKOTUTAKO ENPRESEN NNP KOMUNITATEA

### Zer den

Frogatuta dago enpresek nazioartekotze gaitasunak ikasteko eta garatzeko mekanismorik onenetako bat esperientzia trukea dela, hots, nazioartekotutako enpresen eta nazioartekotzen hasteko fasean dauden enpresen artean.

Nazioartekotutako enpresen komunitatea enpresen arteko lotura hori sortzeko tresna gisa jarri da abian, merkatuei, jarduteko ereduari, dauden eragileei edo ezarpen mekanismoei buruzko esperientziak partekatzearen. Nazioartekotzeari laguntzeko politika publikoak diseinatzeko laguntza ere izanen da.

### Norentzat den

Nazioartekotutako enpresetako profesionalak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

- Plataforma birtuala, enpresen komunitate horren oinarri gisa.
- Plataformaren esparruan online networking topaketak antolatzen dira nazioartekotzeko profesional guztientzat.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es) eta app (Android eta IOS)

 Cristina Arana

 [caranare@navarra.es](mailto:caranare@navarra.es)

 848425766



# 2.3. ZERBITZUEN ESPORTAZIOARI BURUZKO DATUAK

## Zer den

Zerbitzu enpresen nazioartekotzea egitate bat bada ere eta mota horretako enpresen nazioarteko proiektuak gero eta gehiago badira ere, zaila da arlo horretako merkataritza harremanen fluxua baloratzea. Horrek zaildu egiten du erabakiak hartzea, zerbitzu enpresei laguntzeko tresnak bultzatze aldera.

Ekintza berri honen bidez, Nafarroako zerbitzu enpresen nazioarteko merkataritza harremanei buruzko informazioa lortu nahi da, datu horiek zerbitzu enpresei laguntzeko politika berriak bultzatzeko tresna izan daitezen.

## Norentzat den

Beren politikak diseinatzeko zerbitzu eta administrazio enpresak.

## Zer laguntza eskaintzen duen


Nastatekin lankidetzan, estatistika eragiketa bat prestatzea, alegia, Nafarroako Gobernuaren Estatistika Planean sartuko den inkesta bat.

## Egutegia

- Inkesta 2023ko bigarren seihilekoan egitea.
- 2024tik aurrera datuak biltzen hasia.

## Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es)



## 3. ARDATZA. NAZIOARTEKOTZE DIGITALA



### EKINTZAK

#### 3.1. NAEX Digitala II



## 3.1. NAEX DIGITALA II

### Zer den

SNafarroako ETE-en nazioartekotze estrategia digitala bultzatzeko programa integralaren bigarren edizioa. Parte hartzen duten enpresek aholkularitza eta laguntza jasoko dute 4 fasetan:

1. fasea: Analisia; enpresaren egoeraren diagnostikoa egitea nazioartekotze digitalerako estrategia bat inplementatzeari begira.
2. fasea: Nazioartekotze plan digital bat diseinatzea.
3. fasea: Nazioartekotze plan digitala inplementatzea.
4. fasea: Emaizak ebaluatzea.

### Norentzat den

Nafarroako ETEak

### Zer laguntza eskaintzen duen

- Programak osorik estaltzen du nazioartekotze digitaleko prozesuan enpresei laguntza eta aholkularitza ematea.
- Programan parte hartzeko plazak eskabidearen hurrenkeraren arabera esleituko dira.
- 2024 eta 2025 bitartean 100 enpresarentzako laguntza aurreikusi da.

### Zer merkatuentzat den laguntza

Nazioarteko proiektuak, edozein merkatutan.

### Egutegia

Programaren hasiera: 2024ko apirila.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/naex-digital>

 Cristina Arana

 [caranare@navarra.es](mailto:caranare@navarra.es)

 848427714



## 4. ARDATZA. TALENTUA



### EKINTZAK

- 4.1. NAEX Talentua programa
- 4.2. EBtik kanpoko nazioarteko praktikak
- 4.3. Profesionalentzako prestakuntza
- 4.4. Kanpoko merkataritzako langileak kontratatzeke dirulaguntza
- 4.5. Navarra Talent. Nazioarteko talentua erakartzeko plana
- 4.6. Nazioarteko talentuari harrera egiteko plana





## 4.1. NAEX TALENTUA PROGRAMA

### Zer den

NAEX Talentua beka programak prestakuntza integral teoriko-praktikoa finantzatzen du nazioarteko merkataritzaren arloan. Programan parte hartzen duten pertsonak Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskaintako International Business master (ofiziala) berria egiten dute lehenik. Ondoren, praktikak egiteko atzerriko egonaldia egiten dute, Nafarroako Gobernuaren nazioarteko sustapeneko antenetan eta Espainiako kanpoko merkataritzako bulegoetan (ofecomes), baita enpresetan ere. Praktika horiek nazioarteko planaren lehentasunezko merkatuetan egiten dira: Estatu Batuak, Mexiko, India, Txina, eta baita ICEX bulegoak dituzten herrialderen batean ere.

### Norentzat den

NAEX Talentua beka eskuratzeko, betekizun hauek bete behar dira:

- Nafarroarekin lotura izatea.
- 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera jaioa izatea.
- Gradu unibertsitate titulu ofiziala izatea.

### Zer laguntza eskaintzen duen

1. fasea. International Business masterra, Nafarroako Unibertsitate Publikoan emana.
2. fasea. Praktikak, nazioartekotzea bultzatzeko erakundeetan.
3. fasea. Praktikak, nazioarteko enpresa edo erakundeetan.

### Egutegia

Lehen deialdia 2023ko apirilean itxi zen. Bigarrena 2024ko lehen hiruhilekoan kaleratuko da.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/programa-de-becas-naex-talento>

 Cristina Arana

 [caranare@navarra.es](mailto:caranare@navarra.es)

 848425766



## 4.2. EUROPAR BATASUNETIK KANPOKO NAZIOARTEKO PRAKTIKAK

### Zer den

Graduko edo LH2ko tituludun berriek Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan kokatutako erakundeetan prestakuntza praktikak egiteko bekak (enpresak, ikerketa zentroak, GKEak, enbaxadak, kontsulatuak, Espainiako Turismo Institutuaren, Kanpo Merkataritzako Institutuaren eta Merkataritza Ganberen bulegoak).

Praktikak NUPeko Unibertsitat-Gizarte Fundazioarekin, Nafarroako Unibertsitateko Career Servicesekin eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta kudeatzen dira.

### Norentzat den

Unibertsitateko eta LHko titulazioa duten pertsonak, Nafarroarekin lotura dutenak, eta Gizarte Segurantzako 1. eta 2. Kotizazio taldeen barruan 6 hilabete baino gehiago kotizatu ez dutenak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Sei hilabeteko bekak, honako gastu hauek ordaintzeko zuzkidura gordina barne: egonaldia, bidaiak, bisak eta istripuetarako, bidaiarako, laguntza medikorako eta erantzukizun zibilerako aseguruak.

### Zer merkaturentzat den laguntza

Europar Batasunetik kanpoko edozein herrialde.

### Egutegia

Urteko deialdia; urteko bigarren lauhilekoan argitaratzen da.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/practicasyinternacionales-fuera-de-la-ue>

 Pedro Urrizola

 purrizza@navarra.es

 848425769



## 4.3. PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA

### Zer den

Merkatuak, horien joerak eta berezitasunak ezagutzea oinarritzkoa da nazioartekotzean lan egiten duten pertsonak erabakiak hartu eta beren lana behar bezala egin dezaten.

Horregatik, Nafarroako Nazioarteko Planak arreta berezia eskaintzen die plan honetan lehentasunezko zatitako merkatuetan sortzen diren berrikuntza geopolitiko, komertzial eta sektorial guztiei. Aldizka, aukerekin, ikuspegiekin eta berrikuntzekin lotutako web mintegiak eta prestakuntza saioak antolatuko dira.

### Norentzat den

Nafarroako enpresen nazioartekotzearen arloko profesionalak.

### Zer merkatuentzat den laguntza



### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es)



## 4.4. KANPOKO MERKATARITZAKO TEKNIKARIAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZA

### Zer den

Kanpoko merkataritzako lan teknikoak egiten dituzten pertsonen kontratazioa sustatzeko dirulaguntza. Pertsona horiek Nafarroako egoitzan edo enpresa nafarren kanpoko kokapen batean kokatzen ahal dira.

Urtebeterako lanaldi osoko kontratazioa finantzatzen da. Pertsona horren lanak nazioartekotze plan bat gauzatzearekin lotuta egonen dira.

### Norentzat den

Laguntzak zerga egoitza Nafarroan duten ETE-entzat dira, nazioartekotze proiektu sendoa badute. Pertsona hori foru egoitzan edo enpresa nafarrak kanpoan duen kokapenean kokatzen ahal da.

### Zer laguntza eskaintzen duen

12.000 euroko dirulaguntza, urtebetez lanaldi osoan kontratatzeko.

### Egutegia

Deialdia urtero irekitzen da urteko bigarren lauhilekoan.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/contratacion-de-personas-para-la-ejecucion-del-plan-de-internacionalizacion-de-la-empresa>

 Pedro Urrizola

 purrizza@navarra.es

 848425769



## 4.5. NAVARRA TALENT

### Zer den

Mundu osoko enpresa eta profesionalak harremanetan jartzeko plataforma, Nafarroako enpresetara talentua erakartzeko azken helburuarekin.

Mundu osoko pertsonak izanen dute aukera tresna horretan izena emateko, lan eskaintzak eskuratzeko, curriculum sartzeko eta Nafarroako sektore estrategikoen informazio garrantzitsuaren berri izateko.

Bestalde, enpresek profil bat izaten ahal dute plataforma osatzen duten pertsonak haien berri izateko eta lan eskaintzak argitaratzeko.

### Norentzat den

Edozein tamaina eta sektoretako enpresa nafarrak, beren lantaldeetan profesional berriak sartzeko beharra dutenak.

Nafarroara lanera etor daitezkeen beste herrialde batzuetako profesionalak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Bere burua ezagutarazteko, lanbide maila handiko profilak eskuratzeko eta lan eskaintzak eskegitzeko doako plataforma.

### Zer merkaturentzat den laguntza

Hasierako fasean, nazioarteko talentua erakartzea Nafarroarentzat lehentasuna duten merkatuetan.

### Informazio gehiago

[navarratalent.com](http://navarratalent.com)

 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761



## 4.6. TALENTUARI HARRERA EGITEKO PLANA

### Zer den

Plan honetan jasotako neurrietako bat nazioarteko talentua erakartzea denez, beharrezkoa da talentu hori zenbait zerbitzuren bidez babestea, Nafarroara iristen diren profesionalak soft landing bat izan dezaten eta Nafarroan gizarteratzea errazagoa izan dadin haientzat.

Pertsona horiei arreta osoa emanen dien zerbitzua emanen da, eta, azken batean, horri esker, Nafarroako enpresetara iristen diren beste herrialde batzuetako profesionalak ahalik eta baldintza onenetan lan egiten ahal dute.

### Norentzat den

Mundu osoko profesionalak eta, azken batean, pertsona horiek har ditzaketen Nafarroako enpresei.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Nafarroara lanera iristen diren profesionalentzako kontsulta eta aholkularitza zerbitzua.

### Egutegia

2024ko bigarren seihilekoan jarriko da martxan.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es)

 Miren Ausín

 [mausinle@navarra.es](mailto:mausinle@navarra.es)

 848425761



## **5. ARDATZA. NAZIOARTEKOTZEKO MEKANISMOAK**



### **5.1. ESPORTAZIORAKO HASTAPENA**

### **5.2. HEDATZEA ETA SENDOTZEA**

## 5.1. ARDATZA. ESPORTAZIORAKO HASTAPENA



### EKINTZAK

- 5.1. Esportazio ahalmenaren diagnostikorako (EAD) programa
- 5.2. Aholkularitza lehentasunezko merkatuetan
- 5.3. Kanpoko sustapenerako dirulaguntza (ICEX Next-en osagarria)
- 5.4. Bultzada bonua: hastapena
- 5.5. Mentoretza programa
- 5.6. Nazioartekotze elkaturako dirulaguntza





# 5.1. ESPORTAZIO AHALMENAREN DIAGNOSTIKORAKO PROGRAMA

## Zer den

Autodiagnostiko tutorizatua egitea, enpresaren indarguneak eta ahulguneak detektatzeko, nazioartekotze prozesu bati ekite aldera, eta gomendioak ematea nazioartekotzen hasteko edo arrakasta berme handiagoekin jarraitzeko egin beharreko urratsei buruz.

Programan parte hartuz gero, taldeko autodiagnostiko saio bat (2 ordu) eta, ondoren, banakako bilerak egingen dira, lortutako emaitza eta gomendioak aztertzeko.

## Norentzat den

Oraindik esportatzen ez duten enpresak edo nazioartekotzeko proiektu hasiberria dutenak eta haien arrakasta aukerak baloratu nahi dituztenak.

## Zer laguntza eskaintzen duen

Saioak, analisi bilerak eta gomendioak doan eskaintzen dira. Tailerretako batean bakarrik eman behar da izena.

## Zer merkaturentzat den laguntza

Programak nazioarteko proiektuetarako balio du, edozein merkatutan.

## Egutegia

Aldian-aldian tailerrak egingen dira; horien ardatza Nafarroako eremu bat, sektore bat edo enpresa tipologia bat izanen da.

## Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es/autodiagnostico/](http://planinternacionaldenavarra.es/autodiagnostico/)

 Dolo Goya

 [mgoyaind@navarra.es](mailto:mgoyaind@navarra.es)

 848425767



## 5.2. LEHENTASUNEZKO MERKATUEI BURUZKO AHOIKULARITZA

### Zer den

Nafarroako Gobernuak doako kontsulta zerbitzua eskainiko du Nafarroako Nazioarteko Planean lehentasunezkoztat jotzen diren merkatuei buruz.

Hasierako faseetan sortzen diren eta adituek konpon ditzaketen kontsultei erantzutea da kontua. Kontsulta edo zerbitzu espezializatuagoetarako, zerbitzu hori NAEX Helmuga ekintzarekin osatzen da..

### Norentzat den

Plan honetako lehentasunezko merkatu batzuetan hastekoak diren eta lehen hurbilketa bat behar duten edo zalantza zehatzak argitu behar dituzten enpresak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Kontsultei erantzuteko zerbitzua. Telefonoz, postaz edo aurrez aurreko hitzorduen/bideokonferentzien bidez egiten ahalko da, Nafarroako Gobernuak herrialde bakoitzerako kontratatuta dituen aholkularitza enprekin.

### Zer merkatuentzat den laguntza



### Egutegia

Zerbitzua dagoeneko aktibo dago eta iraunkorra da.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es/consultas/](http://planinternacionaldenavarra.es/consultas/)



## 5.3. KANPOKO SUSTAPENERAKO DIRULAGUNTZA

### Zer den

Kanpo Merkataritzako Espainiako Institutuaren (ICEX) ICEXNext programan onartutako Nafarroako ETE-en esportazio prozesua abiarazteko eta azkartzeko dirulaguntza. Gastu hauek izaten ahal dute diru-laguntza:

- Prospekzio gastuak eta azterketa aurreratuak nazioarteko merkatuan.
- Nazioarteko sustapenaren gastuak.
- Kanpoan merkataritza-sarea garatzeko gastuak.

### Norentzat den

Nazioartekotzeko lehen urratsak egiten dituzten enpresak, ICEXNext programan onartuak izan direnak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Gastuen % 30, ICEX Next enpresak eskaintzen duen % 50aren osagarri. Dirulaguntza gehienez 10.000 eurokoa izanen da.

### Zer merkaturentzat den laguntza

Laguntzak nazioarteko proiektuetarako balio du, edozein merkatutan.

### Egutegia

Laguntzen deialdia urtero egiten da.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/promocion-exterior>

 Cristina Arana

 [caranare@navarra.es](mailto:caranare@navarra.es)

 848425766



## 5.4. BULTZADA BONUA

### Zer den

Kanpora ateratzen hasi diren edo lehen etapetan dauden Nafarroako ETE-ei laguntza ematea, aholkularitza espezializatuko zerbitzuak kontrata ditzaten. Bi dirulaguntza mota:

### Norentzat den

Egoitza fiskala Nafarroan duten ETEak.

Honako baldintza hauetako bat bete beharko da: ICEX NEXT programa egin izana edo egiten aritzea, PIPE programa egin izana, edo itxitako azken ekitaldian fakturazioaren % 30 baino gehiago esportatu izana.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Gastu hauen % 60 diruz lagunduko da, 10.000 euro gehienez:

- Merkatuko azterketa aurreratuak egitea.
- Nazioartekotzeko plana diseinatzeko edo eguneratzeko lanekin lotutako aholkularitza.
- Esportazioen kudeatzaile bati merkataritzako kontratua egitea, gutxienez sei hilabeterako.
- Aholkularitza eta kudeaketa kontratatzea, nazioarteko merkatuetako homologazio eta ziurtapenen gaietarako eta patenteen eta marken erregistrarako.
- Enpresaren nazioartekotze plan digitala abian jartzearekin lotutako gastuak.

### Egutegia

Laguntzen deialdia urtero egiten da.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/bono-impulsa>

 Pedro Urrizola

 purrizza@navarra.es

 848425769



## 5.5. MENTORETZA PROGRAMA

### Zer den

Nazioarteko ibilbide profesional luzea duten eta programan modu altruistan parte hartzen duten pertsonen esperientzia Nafarroako enpresen eskura jartzea.

Mentoretza prozesuak 6 hilabete iraun dezake gehienez, eta, epe horretan, 4-6 bilera egingen dira enpresaren eta mentorearen artean.

### Norentzat den

Nazioartekotzearen fase edo une desberdinetan dauden enpresak izan daitezke onuradun. Bai esperientzia gutxiko enpresak, bai aholku edo orientazioa behar duten enpresa aurreratuagoak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

La mentoría se ofrece de manera gratuita y consiste en la selección de la persona mentora y organización de entre 4 y 6 encuentros con la empresa.

### Zer merkaturentzat den laguntza

Mentoretza doan eskaintzen da. Mentorea aukeratu eta 4 eta 6 topaketa antolatuko dira enpresarekin.

### Egutegia

Edozein unetan eska daiteke parte hartzea. Enpresek eskaera inprimaki bat bete behar dute.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es/mentoría/](http://planinternacionaldenavarra.es/mentoría/)

 Cristina Arana

 [caranare@navarra.es](mailto:caranare@navarra.es)

 848425766



## 5.6. NAZIOARTEKOTZE ELKARTURAKO DIRULAGUNTZA

### Zer den

Nafarroako enpresen arteko lankidetzeta eta elkarketa bultzatzen duten ekintzetarako dirulaguntza, kanpoko merkatu batean elkarrekin barneratzea lortzeko, baterako negozio prozesuan hobekuntzak ezartzeko eta proiektuen bidez enpresen nazioartekotze elkartua errazteko.

### Norentzat den

Nortasun juridikoa duten elkarteak edo legez eratu gabeko elkarteetako kide diren enpresak.

Elkarte bakoitzak 3-15 enpresa izan ditzake, elkarren artean akzio harremanik izan gabe.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Gastu hauek % 60an estaltzen dira:

- Nazioartekotze elkaturako plana koordinatzea, bultzatzea eta egikaritzea
- Kudeatzaileak eta enpresek nazioartekotze planari lotuta egindako bidaien gastuak.
- Egungo bezeroen edo bezero izan daitezkeen bidaiak.
- Baterako sustapenerako gastuak.
- Erakusketa bateratua azoketan eta beste ekitaldi batzuetan.
- Aholkularitza espezializatua kontratatzea.
- Helmugako herrialdean lokalak batera alokatzea.

Produktuen prototipoak edo lankidetzeta prozesuak egiteko gastuak.

### Egutegia

Laguntzak urteroko deialdi batean esleituko dira, eta deialdia urteko lehen hiruhilekoan egingen da.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/internacionalizacion-agrupada>

 M<sup>a</sup> José Aguirre

 maguirrh@navarra.es

 848425772

## 5.2. ARDATZA. HEDATZEA ETA SENDOTZEA



### EKINTZAK

- 5.7. NAEXHelmuga. Helmugako laguntza zerbitzu pertsonalizatuak
- 5.8. NNParen azokak eta misio komertzialak
- 5.9. Bultzada bonua: finkapena
- 5.10. Kanpoko ezarpeneko inbertsioetarako dirulaguntza
- 5.11. NAEX Talentua. Talentua helmugan sartzea
- 5.12. EBtik kanpoko Nafarroako enpresetan praktketan hartzea



## 5.7. NAEX HELMUGA. HELMUGAKO LAGUNTZA ZERBITZU PERTSONALIZATUAK

### Zer den

Nafarroako enpresei helmugatik emandako zerbitzu espezializatu eta pertsonalizatuak eskaintzen dizkien programa, haien nazioartekotzea errazteko.

Pandemiak modu erabakigarrian zaildu ditu merkatu prospekzioa egiteko, helmugan sustatzeko edo banaketa kanalak, inportatzaileak eta bezero potentzialak bilatzeko lanak. Beharrezkoa da ETE-ek helmugan laguntza izatea, merkatua lehen eskuz ezagutzen duten profesionalak emanda.

### Norentzat den

India, Mexiko, India, AEB eta Txinan nazioartekotze proiektuak dituzten Nafarroako ETEak

### Zer laguntza eskaintzen duen

Enpresei honako zerbitzu hauek eskaintzen zaizkie:

- Merkatuan dauden aukeren aldez aurreko zundaketa.
- Kontaktuen agenda.
- Banaketa kanalen bilaketa edo horiei buruzko informazioa.
- Inportatzaileen, banatzaileen eta preskriptoreen zerrenda bizia egitea.
- Eskaintza pertsonalizatua aurkeztea gehienez hiru enpresari.
- Enpresaren produktu edo zerbitzurako merkatu azterketa aurreratua.
- Tokiko langileen hautaketa.
- Kudeaketa pertsonalizatua helmugan.

### Zer merkaturentzat den laguntza



### Egutegia

Martxan dago. Urte osoan eska daiteke modu jarraituan.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/naex-destino>

 Dolo Goya

 mgoyaind@navarra.es

 848425767





## 5.8. NNParen AZOKAK ETA MISIO KOMERTZIALAK

### Zer den

Nafarroako Gobernuak urtero zehaztuko du S4aren sektoreetarako nazioarteko sustapeneko proiektuen egutegia (nekazaritzako elikadura, energia berriztagarriak, automobilgintza, sorkuntza industria eta industria digitalak eta osasuna).

Klusterrekin eta Nafarroako espezializazio adimentsuaren estrategiaren sektoreetan ordezkartza duten beste eragile batzuekin lankidetzan diseinatuko dira proiektuak.

### Norentzat den

Sektore hauetako balio kateko enpresa nafarrak: nekazaritzako elikadura, energia berriztagarriak, automobilgintza, osasuna eta industria digital eta sorkuntza industriak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Proiektuek, besteak beste, honako hauek biltzen ahal dituzte:

- B2B topaketak.
- Zuzeneko misioak.
- Alderantzizko misioak.
- Azoketan parte hartzea.
- Zer merkaturentzat den laguntza

### Zer merkaturentzat den laguntza



### Egutegia

Merkatuen eta lehentasunezko sektoreen arteko ekintzen urteko plangintza orekatua egiten da.

### Informazio gehiago

[planinternacionaldenavarra.es](http://planinternacionaldenavarra.es)

 Dolo Goya

 [mgoyaind@navarra.es](mailto:mgoyaind@navarra.es)

 848425767



## 5.9. BULTZADA BONUA: FINKAPENA

### Zer den

Bonuen sistema, beste herrialde batzuetan ezartzearekin lotutako gastuak finantzatzeko.

### Norentzat den

Azken urtean fakturazioaren % 15etik gorako esportazio bolumena duten Nafarroako enpresak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Gastu hauen % 60 diruz lagunduko da, 10.000 euro gehienez:

- Negozioko aholkularitza eta nazioarteko marketina.
- Aholkularitza eta kudeaketa kontratatzea, nazioarteko merkatuetako homologazio eta ziurtapenen gaietarako eta patenteen eta marken erregistroarako.
- Nazioartekotzearekin lotutako aholkularitza juridikoa eta finantzarioa.
- Helmugako herrialdean merkataritzako agentea edo ordezkaria hautatzeko gastuak.
- Enpresaren nazioartekotze plan digitala abian jartzearekin lotutako gastuak

### Zer merkaturentzat den laguntza

Laguntzak nazioarteko proiektuetarako balio du, edozein merkaturatan.

### Egutegia

Urteroko deialdia banakako ebaluaziorako (eskabideen sarrera hurrenkeraren arabera esleipena)

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/bono-impulsa>

 Pedro Urrizola

 purrizza@navarra.es

 848425769



## 5.10. KANPOKO EZARPENEN INBERTSIORAKO DIRULAGUNTZA

### Zer den

Frogatuta dago enpresa bat atzerrian ezartzeak eta nazioartean hedatzeak lagundu egiten dutela enpresa jatorrian ere hazten. Horregatik, nazioarteko plan honen esparruan, dirulaguntzen lerro berri bat abiarazi da, Nafarroako enpresek atzerrian ezartzeko proiektuetan egin behar duten inbertsioa finantzatzeko.

### Norentzat den

Kanpoan ezartzeko proiektua duten Nafarroako enpresak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Programaren artikulazioa 2024an zehaztuko da.

### Egutegia

Lehen deialdia 2024an.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/>



## 5.11. ENPRESAN NAEX TALENTUA HARTZEA

### Zer den

PAukera ematea Nafarroako enpresei NAEX Talentua programan trebatutako pertsonetako bat praktiketan hartzeko. Programa horrek gazteak nazioarteko merkataritzan espezializatzea du helburu.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nazioarteko Negozioetako masterra egin ondoren, NAEX Talentua beka jaso duten ikasleek aukera dute kanpoko laguntza erakundeen bulegoetan prestakuntza osatzeko, bai eta, geroago, nazioarteko jarduera duten Nafarroako enpresetan ere.

### Norentzat den

Betekizun hauek betetzen dituzten enpresek parte har dezakete programan:

- Nafarroan alta emanda egotea EJZn.
- Atzerrian filial bat izatea.
- Bekarako prestakuntza plan bat ematea eta tutoretzaz arduratuko den pertsona bat hautatzea.

### Zer laguntza eskaintzen duen

- International Business arloan trebatutako pertsona bat kanpoko merkataritzako zereginetan integratzea.
- Nafarroako Gobernua arduratuko da beka ordaintzeaz.

### Egutegia

Irekia; eskaerak etengabe jasotzen dira. Lehenengo bekadunak 2024ko uztailean sartuko dira.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/acoge-naex-talento>

 Pedro Urrizola

 purrizza@navarra.es

 848425769



## 5.12. EBTIK KANPOKO NAFARROAKO ENPRESETAN PRAKTIKETAN HARTZEA

### Zer den

Titulatu berri bat praktiketean hartzeko aukera Europar Batasunetik kanpoko Nafarroako enpresen ordezkarietan.

Praktikak NUPeko Unibertsitat-Gizarte Fundazioarekin, Nafarroako Unibertsitateko Career Servicesekin eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta kudeatzen dira.

### Norentzat den

Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean bulego edo egoitza duten enpresak.

### Zer laguntza eskaintzen duen

Sei hilabeteko bekak.

### Egutegia

Urteko deialdia. Urteko bigarren lauhilekoan argitaratzen da.

### Informazio gehiago

<https://www.planinternacionaldenavarra.es/es/practic-as-internacionales-fuera-de-la-ue>

 Pedro Urrizola

 purrizza@navarra.es

 848425769



## 6. ARDATZA. ATZERRIKO INBERTSIOA ERAKARTZEA



EKINTZAK

6.1. SODENAK betearazitako ardatza



**Plan Internacional de Navarra  
Nafarroako Nazioarteko Plana**